

18. Arin-arinerako dantza-koplak

Arratian ei dagoz
mutilak galantak, (bis)
txapel azulak eta
mahonezko frakak.

Ai, ai, ai, mahonezko frakak.

Arratian ei dagoz
mutilak galantak.

Urrukutruku truku,
ez eidazu ikutu. (bis)

Ama kamaran dago
asmau egingo gaitu.

Ai, ai, ai, asmau egingo gaitu.

Urrukutruku truku,
ez eidazu ikutu.

Errementari baino
hoba da zesteru, (bis)
lepo bete egurregaz
kolko bete diru.

Ai morena, kolko bete diru.

Errementari baino
hoba da zesteru.

Hankak arin eta
burua arinago. (bis)
Jantzan hobeto daki
artajorran baino.

Ai, ai, ai, artajorran baino.

Hankak arin eta
burua arinago.

Hamar hamaiketako
jabonaduria. (bis)

Txotxolon frakak eta
garritan gonia.

Ai, ai, ai, garritan gonia.

Hamar hamaiketako
jabonaduria.

Hamar hamaiketako
eguzki beroa. (bis)

Ama buruan min dot
eta etxera noa.

Ai, ai, ai, etxera noa.

Hamar hamaiketako
eguzki beroa.

Ama, ez esan aitari
buruan min dudala (bis)

Gaueko parrandeak
galdu ninduela.

Ai, ai, ai, galdu ninduela.

Ama, ez esan aitari
buruan min dudala.

Gauean parrandan,
eta egunez logura. (bis)

Ez zarala, maitea,
zure buruaren gura.

Ai, ai, ai, zure buruaren gura.

Gauean parrandan eta
egunez logura.